

Baso-pista eta Udalari dagozkion bideen erabilpen Oinarrien Ordenantza Erregulatzailerak.

SARRERA

Korporazio Lokalen ondasunak erostea, administratzea eta erabiltzea Erregimen Lokaleko Legeak eta bera erregulatzen duten Erregelamenduek, Korporazio Lokaletako Zerbitzuen Erregelamenduak eta Ondasunen Erregelamenduak bereziki, arautzen dute. Aipatu legeriak aurreikusten du, halaber, Korporazio Lokalek beren eskuduntzak erabiliz arautu ahal izango dituztela Bandoak, Ordenantzak, Erregelamenduak eta abarren bitartez kasu bakoitzari dagozkion zehazpenak.

Jabari publikoko ondasunen erabilera, amankomuna, orokorra, pribatiboa, anormala eta abar izan daitekeena, horrezaz gainera erabilera amankomun berezia aurreikusten du, erabileraren intentsitatea eta lizentziari lotua egon ahal izatea direlarik haren ezaugarri nagusiak.

Erabilera amankomuneko jabari publikoko ondasun bat erabilera baldintza onetan mantentzeak, hala nola mendi-pistak eta bideak oro har, ahalegin handia eskatzen du, bai administrazioaren aldetik bai partikular erabiltzaile orokorren aldetik.

Erabilera intentsibo eta desegokiak edo neurritz gainekoak berehala hondatzen du zorua, ibilgailu normalek erabil dezaten galaraziz.

Egur-ateratze lanak, batik bat, pisten erabilera intentsiboa behar du eta gero bideena, errepide nagusira heldu arte, beraietan kalte handiak eginez, normalean areagotu egiten direnak oinarritzko erabilera arauak ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik: Gehiegizko zamak, ibilgailu desegokiak, euriteka, eta abar.

Egindako inbertsioek eta gerora egitekoek errentagarritasun egokia izan dezaten (errentagarritasun hau erabiltzaile publikoak nahi izaten ds) ezinbestekoa da erabilpen berezi hau arautzea, pistak behar bezala zaintzen direla eta bide publikoak egoera onean daudela ziurtatzeko, eta herriko leku desberdinetara iristeko aukera izateko.

1. artikulua.

Ordenantza honen xedea udal-jabetzako nahiz erabilera publikoko bideen erabilpen orokorra eta erabilpen berezia arautzea da, herri erabilerako ondasunekin zerikusia duten gaietan Udalari egotzitako kompetentziak erabiliz.

2. artikulua.

Udal-jabetzakoak diren era eta maila guztietako pista eta bideek herri-jabetzako ondasuna osatzen dute.

3. artikulua.

Berauen titularra den heinean, Udalari dagokio herri jabetzako erabilpenen plangintza eta arauaketa, Ondasunen Erregelamenduaren 75. artikulua aurreikusten duenaren arabera.

4. artikulua.

Erabilera librea izanik, landa-bideek nolako ezaugarriak dituzten ikusita eta ingurunea babestu arren, ibilgailuekin erabili ahal izateko hurrengo arau orokorrak ezartzen dira.

4.1. Debe katuta dago ibilgailu hauek pasatzea: Beldar-ibilgailuak, katedun ibilgailuak edo antzekoak, zoruaren gainetik arrastatzekoak edota errodadura-bandakoak, 26 tonatik gorakoak eta hiru ardatz baino gehiagoko kamioiak.

4.2. Landa-ibilgailuen erabilera orokorrerako hurrengo mugak ezartzen dira: Gehienezko abiadura 30 Km/ordukoa.

Hau guztia, bide eta pistetan zehaztutako beheragoko mugei kalterik egin gabe.

4.3. Behar bezala arrazoitutako kasu berezietan muga hauek gaindi daitezke, baldin eta udal-baimena lortu bada.

5. artikulua.

Ordenantza honen ondorioetarako, erabilera bereziko ibilgailu gisa hartuko ditugu honakoak: Tonaje edo edukiera handiko kamioiak, nekazaritzarako trakzio-ibilgailu handiak, materiala garraiatzeko dutenak ala ez dutenak. Baso-lanetarako edo beste erabilpenetarako behin eta berriro erabiltzea.

LIZENTZIA ESKURATZEKO DERRIGORTASUNA

6. artikulua.

Derrigorrezkoa da lizentzia eskuratzea aurreko artikuluan ikusitako erabileretarako jardunean hasi aurretik.

7. artikulua.

Dagokion lizentzia Udalari zuzendutako idazkiaren eta plano bitartez eskatuko da, argi eta garbi adieraziz ibilbide nagusia eta beste aukera batzuk, kasua balitz, erabileraren helburua, erabiliko diren ibilgailuen ezaugarriak, jardueraren zenbatekoa eta garrantzia, eta baita zenbat iraungo duen eta, oro har, beharrezkotzat jotzen diren argibide guztiak, promotoreak edo behar bezala identifikatutako ordezkariak izendatuta.

8. artikulua.

Eskaria beharrezko baldintzetan aurkeztu ondoren, izapidetzeko onartu ondoren eta, kasua balitz, dagokion udal-zerbitzuaren txostena ikusi ondoren, lizentzia eman edo ukatu egingo da aurkezten denetik, luze jota ere, hilabeteko epean.

Erabakia jakinarazi gabe epe hau amaitzen bada, lizentzia ukatutzat joko da.

9. artikulua.

Lizentziarekin batera erabilpenerako baldintza orokorrak eta kasu bakoitzari bereziki dagozkionak adieraziko dira, guzti horiek nahitaez betebeharrekoak izango direlarik. Lizentziarekin hirugarrenengo bat kaltetzen ez dela ulertuko da eta lizentzia berak ez du kasu bakoitzean arauzko beste baimenak lortu beharraz salbuesten.

10. artikulua.

Lizentziaren eskatzaileak berme fidantza bat utziko du derrigorrez, jarduera bitartean sor litezkeen kalteez erantzungo duena.

FIDANTZA UZTEA

11 artikulua.

Lizentziari atxikitako egungo jarduera nagusia egur ateratzea denez gero, lizentzia eskariarekin batera Gipuzkoako Foru Diputazioko Basozaintza Zerbitzuak burututako baimen eta neurketa orria joango da, eta egingo diren joan-etorrien gutxi gora beherako kalkulua.

12. artikulua.

2006ko fidantzaren zenbatekoa hurrengo eskala honen arabera zehaztuko da:

<i>Bidearen luzera</i>	<i>Fidantza</i>
Km bateraino	1,50 €/est. edo 1,92 €/m ³
Km batetik bi km	2,95 €/est. edo 2,76€/m ³
Bi km baino gehiago	2,50 €/est. edo 3,20€/m ³

Gutxiengo fidantza, edozein kasuetan edo erabilpenetan 1.800 €koa izango da.

Kopuru hau urtero, K.P.I.-aren arabera eguneratuko da. Eguneratze hori egiteko ahalmena ematen zaio Alkate Jaunari urte bakoitzaren hasieran Dekretu bidez egin dezan.

13. artikulua.

Fidantzaren kopurua ezarri ondoren eta jarduerari ekin aurretik, Udal kutxan sartuko da eskudirutan edo abal, titulu edo indarrean dagoen araudiak onartzen duen beste edozein bide erabiliz.

FIDANTZAREN ITZULKETA

14. artikulua.

Ordaindutako fidantzaren itzulketa eskatzeko Udalari idazki bat bidali beharko zaio, lanak burutu direla eta hala bada, sortutako kalteak adieraziz.

15. artikulua.

Aurreko artikuluan aipatutako idazkia aurkezten denetik hilabeteko epean, batzorde berriemailearen informea ikusirik, Alkateak erabakiko du fidantzaren itzulketa, hala badagokio, edota lizentziaren jabeari jakinaraziko zaio zer konponketa burutu behar duen. Jakinerazpena egin eta hilabeteko epean beharrezko konponketak burutu ez badira, Udalak, indarrean dagoen Prozedura Administratiboaren Legeak, exekuzio subsidiarioari buruz dionaren arabera ekingo du.

16. artikulua.

Baldin eta utzitako fidantza, zuzenean edota zeharka sortutako kalteen konponketa gastuak estaltzeko hain ez balitz, Udalak ondoriozko erantzukizunak eskatuko ditu, lizentziaren jabearen aurka beharrezko lege neurriak hartuz.

TASA

17. artikulua.

Erabilera bereziagatik dagokion tasa ordaindu beharko da, dagokion ordenantza fiskalak hala ezartzen duenean.

18. artikulua.

Tasa ordaintzeak ez du Fidantzak edo abalak ezartzeko obligaziotik libratzen, Ordenantza honen 12 artikuluan espresuki erregulatua dagoenez.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

19. artikulua.

Arau-hauste eta zigorren sistema arautuko da honakoaren arabera: Gipuzkoako errepide eta bideen azaroaren 25eko 17/1994 Foru Arauaren VI. idazpuruko (Defentsa eta zigor arauak) 1. kapituluaren (Urraketak) eta 2. kapituluaren (Jardunbidea eta zigorra) arabera.

20. artikulua.

Era berean, sortutako kalteak konpondu eta ordaintzera derrigortuta daude, beharrezkoa izan den kasuetan jarri izan diren zigorrei kalterik egin gabe.

21. artikulua.

Bide, baso-pista eta beraien elementu funtzionalen aurkako ekintzak delitu edo hutsegitea badira, eskumena duen udal-agintaritzak agintaritza judizialari jakinaraziko dio.

BUKAERAKO XEDAPENAK

22. artikulua.

Udalak ahalmena du erregelamendu hau interpretatzerakoan sor litekeen edozein arazo konpontzeko.

23. artikulua.

Bide eta pista bakoitzaren historia errespetatu asmoz, Ordenantza honek ez ditu bide bakoitzeko aspaldidaniko ohiturak estaliko.

24. artikulua.

Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN testu osoa argitaratzen denetik kontatzen hasi eta hamabost egunetako epean indarrean sartuko da, bere aldaketa edo derogazioa erabakitzen ez den bitartean indarrean jarraituko duelarik.

Irura, 2006ko ekainaren 28a.—Alkatea.